

LEHEN HEZKUNTZAKO GRADUA

4. MAILA

2026-2027 IKASTURTEA

MODULU LANERAKO IKASLEAREN GIDA



K6 MODULUA: Gorputz Hezkuntzako Minorra

Egungo eskolarako Gorputz Hezkuntza hezitzailearen gakoak


Moduluaren koordinatzailea: Alfredo López de Sosoaga

AURKIBIDEA

1. SARRERA.....	2
2. MODULUAREN IKASGAIK ETA IRAKASLEAK	3
3. MODULU LANAREN AURKEZPENA.....	4
3.1. Minorreko irakasgaiak	4
4. HELBURUAK, KONPETENTZIAK ETA IRAKASKUNTZA EMAITZAK	5
5. EGIN BEHARREKO LANA	5
5.1. Asmo pedagogiko nagusia	5
5.2. Lan egiteko modua.....	6
5.4. Kronograma eta lanaren faseak.....	7
5.5. Lanaren entregak	8
6. EBALUAZIOA	8
6.1. Ohiko deialdia	8
6.2. Ez-ohiko deialdia	9
6.3. Plagio edo iruzurrezko jokaerak	9
6.4. Euskara eskakizunak	9
7. OHAR GARRANTZITSUAK	9
8. BIBLIOGRAFIA	10
9. ERANSKINAK.....	12

1. SARRERA

“Gorputz Hezkuntzako Moduluko Lana”, Lehen Hezkuntzako Graduaren 6. modulua da. Laugarren ikasturtean zehar ematen da, Gorputz Hezkuntzako minor profesionalizatzaileraren barnean eta taulan agertzen diren bost ikasgaiak hartzen ditu:



Beste moduluetan bezala, 6 kredituko irakasgai bakoitzeko kreditu bat edo kreditu eta erdi konpartituko dira (puntu 2). Beraz, moduluko lanak **5 kreditu ditu**, eta 10 puntuko balorazioa, inplikaturako bost irakasgaien artean banatuta direnak. Lan honen helburua minorreko irakasgai ezberdinen inguruko ezagutza teoriko-praktikoak haien artean elkar lotzea izango da. Lan honen bidez **Agenda 2030ko** Garapen Iraunkorrerako hurrengo helburuak (**GIH**) bilatuko dira: 3. Osasuna eta Ongizatea, 4. Kalitatezko Hezkuntza, 5. Genero-berdintasuna eta 10. Desberdintasunak murriztea.

2. MODULUAREN IKASGAIK ETA IRAKASLEAK

IKASGAIA	IRAKASLEA	EMAILA	BULEGOA	TELEFONOA
Motrizitatearen Garapena	Ibon Etxeazarra	ibon.etxeazarra@ehu.eus	2.11	945 014180
Motrizitate Kultura	Alfredo Lpz. de Sosoaga	alfredo.lopezdesosoaga@ehu.eus	2.11	945 014191
Gorputz Adierazpena	Ana Zuazagoitia	ana.zuazagoitia@ehu.eus	2.7	945 014177
Gorputz Hezkuntza eta bere Didaktika II	Guillermo Infante	guillermo.infante@ehu.eus	B.10	945 01 4198
	Geraldine Ramirez	carmengeraldina.ramirez@ehu.eus	2.10	945 01 4182
Osasuna eta Jarduera Fisikoa	Irantzu Ibañez	irantzu.ibanez@ehu.eus	1.6	945 013277
	Iraitz Lizarraga	iraitz.lizarraga@ehu.eus	1.9	945 01 3272

3. MODULU LANAREN AURKEZPENA

3.1. Minorreko irakasgaiak

Minorreko moduluko lanak elkarrekintzan jarriko ditu irakasgai bakoitzetik Gorputz Hezkuntzako Practicum III-a burutzeko lagunduko duten elementuak. Lan honetan parte hartzen duten bost irakasgaien eduki nagusiak honako hauek dira:

Gorputz Hezkuntza eta bere Didaktika II	• Gorputz Hezkuntzaren ikuspegi hezitzailea: paradigmak • Metodologia. Saioaren egitura
Motrizitate Kultura	• Jarduera motorren barne logikaren kontzeptua: horren dimentsio eta ezaugarri estrukturalak • Jokabide motorra estrategia didaktiko nagusitzat hartzea • Barne logikaren konfigurazio ezberdinek ematen dituzten ikasteko aukerak • Kanpo logika: gizartea eta kultura
Gorputz Adierazpena	• Hitzezko eta ez-hitzezko komunikazioa • Dramatizazioa eta ipuin motorea • Alderdi emozionala lantzeko aukera
Motrizitatearen garapena	• Dimentsio fisiko-motorraren ekarpenak gizakion garapen osorako • Konpetentzia motorraren nozioa: horren ikuspegi integrala • Curriculumeko konpetentzia motor espezifikoak • Mugimen gaitasun eta trebetasunak eta konpetentzia motor espezifikoak
Osasuna eta Jarduera Fisikoa	• Jarduera fisikoa eta osasunaren arteko harremana: ikuspegi biomedikoa vs ikuspegi holistikoa • Gorputz aniztasunaren trataera • Ohitura osasuntsuen sustapena eskolan

3.2. Taldeen osaketa

Modulu lana 4 ikasleko taldeetan burutuko da. Talde hauek ikasturte hasieran sortuko dira eta minorreko irakasgai guztien lanak egiteko berdin mantenduko.

4. HELBURUAK, KONPETENTZIAK ETA IRAKASKUNTZA EMAITZAK

Modulu lan honen helburua minorreko irakasgai ezberdinen inguruko ezagutza teoriko-praktikoak haien artean elkar lotzea da. Moduluaaren konpetentzia nagusiak eta irakaskuntza emaitzak hurrengoak dira:

KONPETENTZIAK	IRAKASKUNTZA EMAITZAK
6-12 urte bitarteko etapan Gorputza Hezkuntzaren gaur egungo erronkak identifikatzea kalitatezko hezkuntza bermatzeko, hezkuntza ikerketaren oinarrizko teknikak aplikatuz.	Gorputz Hezkuntzaren erronka nagusiak identifikatzea, adituei egindako elkarriketen analisi kualitatiboaren bidez
Gorputz Hezkuntzaren irakaskuntzarako proposamen espezifikak garatzea eta aurkeztea, norbanakoaren eta taldearen erantzukizuna eta hausnarketa sustatuz, ume guztien ongizate integrala eta aukera berdina ziurtatzeko.	- Taldean modu arduratsuan jardutea, bakoitzak bere rolak betetz, jarrera aktibo bat hartuz eta arazoaren aurrean jarrera proaktiboa erakutsiz. - Etorkizunerako orientabide zehatzak proposatzea, identifikaturiko erronken inguruko hausnarketa burutuz. - Edukia modu eraginkorrean aurkeztea, informazio esanguratsuena aukeratuz eta koherentzia antolatuz, diseinu erakargarria erabiliz eta hitzezko eta ez-hitzezko komunikazioa zainduz.

5. EGIN BEHARREKO LANA

5.1. Asmo pedagogiko nagusia

Lanaren helburu nagusia da Lehen Hezkuntzako Gorputz Hezkuntzaren irakaskuntza ikuspegi pedagogiko eta eguneratu batetik ulertzeko oinarriak finkatzea. Horretarako, minorreko bost irakasgaietan landutako funtsezko edukiak sendotu eta elkarrekin lotuko dira, eta oinarri teoriko hori Euskal Autonomia Erkidegoko Gorputz Hezkuntzako irakasleen jardun errealarekin alderatuko da. Eredu teorikoaren eta praktika errealaren arteko alderaketa horretatik abiatuta, arloak gaur egun dituen erronka nagusiak identifikatzea, irakaskuntzarako inplikazioak zehaztea eta erronka horiei aurre egiteko orientabideak proposatzea izango da azken helburua.

5.2. Lan egiteko modua

Lan modularren erreminta nagusia elkarriketa izango da. Ikerketa teknika kualitatibo horren bidez, Gorputz Hezkuntzako irakasleen aldetik praxi errealaren inguruko informazioa biltzea planteatzen da, Minorrean jorratuko diren eduki nagusiekin alderatzeko. Horretarako, hainbat ikas-jarduera zehazten dira, bi zati nagusitan aurrera eraman behar direnak, irakasgaien hasierako lanketa eta elkarriketaren lana, jarraian jasotzen den bezala.

- **Hasierako lanketa: irakasgaien gakoak**

Gorputz Hezkuntzako saioetan norberak izandako bizipenetan oinarrituz, arloak dituen ahulezia eta indarguneak identifikatuko dira. Hurrengoak dira irakasgai bakoitzean landuko diren eduki-nagusiak:

1. Jarduera fisikoaren garrantzia gizakiaren ongizate integralerako: jarduera fisikoa eta osasunaren sustapena eskolan (Osasuna eta Jarduera Fisikoa)
2. Ikasleen konpetentzia motorren sustapena, Eskolako Gorputz Hezkuntzaren helburu nagusia: konpetentzia motor espezifiko guztien programazioa (Motrizitatearen garapena)
3. Ikuspegi hezitzailea da Gorputz Hezkuntzaren irakaskuntza bideratzen duena: saio fitxa, aztergai (Gorputz Hezkuntza eta bere didaktika II)
4. Jarduera motorren barne- eta kanpo- logikaren ezagutza eta horren aukera didaktikoak konpetentzia motorrak garatzeko (Motrizitate Kultura)
5. Gorputz adierazpenaren balioa ikasleen konpetentzia motor osoa sustatzeko (Gorputz Adierazpena)
6. Aniztasunaren trataeraren, emozioen kudeaketaren analisia eta genero ikuspegiaren inguruko zehar-lanketa (5 irakasgaiak)

- **Elkarriketaren lana**

1. *Elkarriketa gidoiak osatu.* Aurreko fasean detektatutako arazo eta gai ezberdinen inguruan ateratako ondorio nagusienekin batera elkarriketa gidoia osatuko da.
2. *Irakasleak elkarriketatu eta edukia analizatu.* Talde bakoitzak bi elkarriketa aurrera eramango ditu. Ondoren, horren transkripzioa beste talde batekin partekatuko dira, eta kategorizazio eta interpretazio lanaren ostean, bertan azaleratzen diren gai eta datu esanguratsuenak identifikatuko dira.

3. *Aurkezpena egin.* Erronka nagusienak identifikatu eta gero, arloko irakasle espezialista bezala, hauei aurre egiteko proposamen didaktikoak eta horren irakaskuntzarako inplikazioak defendituko dira.

Ataza bakoitza burutzeko talde bakoitzak akta bat bete beharko du. Bertan, saioa hasi baino lehen, ikasle bakoitzari rol bat egokituko zaio (koordinatzailea, idazkaria, bozeramailea, dokumentu kudeatzailea...). Aktan, saioaren helburua, ataza aurrera eramateko erabili diren estrategiak, aurkitu dituzten zailtasunak eta hauei aurre egiteko erabili diren estrategiak islatu beharko dira. Bertan ere, islatu beharko dira, saioen inguruko hausnarketak edo ideia nagusiak azalarazi.

5.4. Kronograma eta lanaren faseak

	DATAK	JARDUERA	ENTREGATZEKOAK
Hasierako lanketa: irakasgaien gakoak	1. astea Irailak 7-11	K6 LANAREN AURKEZPENA - Alfredo López de Sosoaga (koordinatzailea)	..
	2. astetik 7. astera Irailak 14 - Urriak 23	IRAKASGAIEN GAKOAK LANDU Irakasgai bakoitzaren gakoak lantzea (4. orrialdean zehaztutakoak) - Irakasle bakoitzak bere dimentsioa	Ezagutza, hausnarketa eta elkarriketaren bidez eskuratu beharreko informazioa (kontrol zerrenda eta galdera proposamenak)
Gidoia	8. astea Urriak 26-30	ELKARRIZKETA GIDOIA OSATU (feedbacka) - Irakasle bakoitzak bere dimentsioa	Elkarriketa gidoia
Elkarriketen lana	9. eta 10. asteak Azaroak 2-13	ELKARRIZKETA AURRERA ERAMAN	Transkribapena Kategoria sistema Kategorizazioa Informazioaren analisisa
	11. astetik 13. astera Azaroak 16 - Abenduak 4	ELKARRIZKETEN EDUKI ANALISIA - Irakasle taldea	
	14. eta 15. asteak Abenduak 7-18	JASOTAKO INFORMAZIOAREN HAUSNARKETA LANA - Irakasle bakoitzak bere dimentsioa	
Defentsa	K6 Azterketa egunean	LANAREN AURKEZPENA ETA DEFENTSA - Irakasle guztiak epaimahaikide	Portfolioaren entrega Aurkezpenak

5.5. Lanaren entregak

Irakasgai bakoitzaren lanketa eta entregagaien datak kronograman zehaztuta agertzen dira eta irakasle bakoitzak moldatzeko edo aldatzeko aukera izango du. Horretaz aparte, azkenengo bi lan aurkeztu beharko dira Fakultateko web gunean publikatuta agertzen diren K6 modulu lanaren azterketa egunerako:

- Portfolioa: lanketa ezberdinen aktak, elkarrizketa gidoia eta elkarrizketen transkripzioa eta audioak agertu beharko dira (ikusi 1. Eranskina).
- Aurkezpena: analizatutako datuetatik identifikatutako erronkak eta etorkizunerako orientabideak aurkeztuko dira. Horretarako, formatu librea erabili ahalko da (pptx, Canva, rol playing, ...) 20 minutuko iraupenarekin (ikusi 1. eranskina).

Hasierako irakasgaien gakoien lanketaren ostean, ikasleek feedback orokor bat jasoko dute eta talde bakoitzaren erantzukizuna izango da feedback horretan oinarrituz haien elkarrizketarako prestatu behar duten dokumentazioa zuzentzea edo hobetzea.

6. EBALUAZIOA

6.1. Ohiko deialdia

Moduluko lanaren ebaluazio sistema, etengabeko ebaluazioa eta azken ebaluazioa jarraitu duten ikasleei egokitua dago. Bi kasuetan, lanaren notak hamarretik bi puntu suposatuko du irakasgai bakoitzaren nota finalean. Modulu lana gainditzea **derrigorrezkoa** izango da gainerako irakasgaiak aprobetxatzeko; hau da, giltza da.

ETENGABEKO EBALUAZIOA

Etengabeko ebaluazioa egin ahal izateko, ezinbestekoa izango gutxienez 3 irakasgaitan matrikulatuta egotea eta irakasgai hauetan etengabeko ebaluazioari jarraitzea.

- Portfolioa %30a

- Aurkezpena %70a

Talde bakoitzak autoebaluazio txantiloia bat beteko du (2. eranskina) bertan kualitatiboki zein kuantitatiboki taldekide guztien ekarpenak ebaluatzeko eta horren arabera azkenengo nota aldatu ahal izango da. Beraz, modulu lanaren kalifikazioa ez du zertan bera izan taldekide guztientzat.

AZKEN EBALUAZIOA

Azken ebaluazioa aukeratzen duten ikasleek egin beharreko lana etengabeko ebaluazioa hautatzen duten ikasleen lanaren ezaugarri berdinak izango ditu

6.2. Ez-ohiko deialdia

Ohiko deialdian gainditzen ez duten ikasleek ez ohiko deialdian aurkeztu beharko dute lana berriz, beharrezkoak diren hobekuntzak eta zuzenketak eginez.

Moduluko lana ikasturte naturaleko bi deialdietan gainditzen ez duen ikasleak, hurrengo ikasturtean moduluko lanaren kasuan azken ebaluazioa aukeratzen duten ikasleen planteamendua jarraitu beharko du.

6.3. Plagio edo iruzurrezko jokaerak

Modulu lanean plagioa, zintzotasunik gabeko edota iruzurrezko jarduera detektatuz gero, lana automatikoki suspendituta egongo da, eta hurrengo deialdietan azken ebaluazio sistemaren bidez ebaluatuak izango dira ikasleak.

6.4. Euskara eskakizunak

Idatzizko lanetan zein ahozko aurkezpenetan euskara maila akademiko egokia beharrezkoa izango da, akats ortografiko eta gramatikorik gabekoa.

7. OHAR GARRANTZITSUAK

Moduluen akordioen gidan K6 lanen inguruko argibide orokorrak kontsultatu daitezke:
<https://www.ehu.eus/eu/web/hezkuntza-eta-kirol-fakultatea/lehen-hezkuntzako-gradua>

8. BIBLIOGRAFIA

- Albertín, P. (2007). La formación reflexiva como competencia profesional. Condiciones psicosociales para una práctica reflexiva. El diario de campo como herramienta. *Revista de Enseñanza Universitaria*, 30, 7-18.
- Bisquerra, R. (2000). *Educación emocional y bienestar*. Barcelona: Praxis.
- Canales-Lacruz, I. & Sanagustin, E. (2019). La visión del profesorado de primaria de educación física sobre la expresión corporal. *Revista Española de Educación Física y Deportes*, 424, 21-32
- Devís, J. (2018). Los discursos sobre las funciones de la Educación Física Escolar. Continuidades, discontinuidades y retos. *Revista Española de Educación Física y Deportes*, 423(4), 121-131.
- Encuentra Bleca, V., & Torrents Martín, C. (2023). La expresión corporal como medio para educar en la igualdad. Guía docente.
- Fernández-García, L., & Fernández-Río, J. (2019). Proyecto Wonderwall: identificación y manejo de emociones en la Educación Física de Educación Primaria. *Retos: nuevas tendencias en educación física, deporte y recreación*, 35, 381-386.
- Gil-Ares, J., Armada-Crespo, J. M. & Coterón, J. (2025). Actitudes hacia la expresión corporal del alumnado del Grado en Educación Primaria en España. *Retos: nuevas tendencias en educación física, deporte y recreación*, 65, 508-519.
- Guerrero, D. (2022). *Corres como una niña. El género en la diversidad LGTBI en el deporte*. Editorial Dos bigotes.
- Ibarra-Sáiz, M. S., González-Elorza, A., y Rodríguez-Gómez, G. (2023). Aportaciones metodológicas para el uso de la entrevista semiestructurada en la investigación educativa a partir de un estudio de caso múltiple. *Revista de Investigación Educativa*, 41(2), 501-522. DOI: <https://doi.org/10.6018/rie.546401>
- Karrera Juarros, I., & Arguiñano Madrazo, A. (2018). Escuelas inclusivas en el País Vasco: organización escolar y currículum emergentes y flexibles. In H. Arancibia Martini, P. Castillo Armijo, & J. Saldaña Fernández (Arg.), *Innovación educativa: perspectivas y desafíos* (or. 139–174). Instituto de Historia y Ciencias Sociales. Universidad de Valparaíso.
- Lleixà Arribas, T., Soler i Prat, S., & Serra, P. (2020). Perspectiva de género en la formación de maestras y maestros de Educación Física. *Retos: nuevas tendencias en Educación Física, Deporte y Recreación*, 37, 634-642.
- López-Noguero, F. (2002). El análisis de contenido como medio de investigación. *XXI, Revista de Educación*, 4, 167-179.
- López Pastor, V. M., Dario Pérez Brunicardi, Manrique Arribas, J. C., & Roberto, M. A. (2016). Los retos de la Educación Física en el Siglo XXI. *Retos: nuevas tendencias en Educación Física, Deporte y Recreación*, 29, 182-187.
- Miralles-Pascual, R, Filella-Guiu, Gemma, & Lavega-Burgués, P. (2017). Educación física emocional en el ciclo superior de educación primaria. Ayudando a los maestros a tomar decisiones (Emotional physical education through games in primary education. Helping

teachers to make decisions). *Retos: nuevas tendencias en Educación Física, Deporte y Recreación*, 31, 88-93.<https://doi.org/10.47197/retos.v0i35.63259>

Olaz, A. (2008). *La entrevista en profundidad*. Oviedo: Septen edicions.

Rodríguez, C. (2006). *Género y currículo. Aportaciones del género al estudio y la práctica del currículo*. Akal.

Sánchez-Hernández, N., Soler-Prat, S., & Martos-García, D. (2022). La Educación Física desde dentro. El discurso del rendimiento, el currículum oculto y las discriminaciones de género. *Ágora para la Educación Física y el Deporte*, 24, 46–71.

Wood, P. & Smith, J. (2018). *Investigar en educación. Conceptos básicos y metodología para desarrollar proyectos de investigación*. Narcea.

9. ERANSKINAK

1. Eranskina: Modulu lanaren ebaluazioa

EBIDENTZIA		LORPEN ADIERAZLEAK
PORTFOLIOA %30	Aktak	Aktaren atal guztiak formalki et sakontasunez jaso dira
	Elkarrizketa gidoia	Elkarrizketa gidoian klasean landutako dimentsio guztiak kontuan hartzen dira (bost irakasgaien gakoak)
		Elkarrizketa gidoiaren galderen formulazioa elkarrizketa erdi-egituratuari bideratuta dago, galdera bakoitza bi konkrezio mailatan egituratua
	Transkripzioak Kategorizazioa	Elkarrizketaren transkripzio zuzena eta fidela agertzen da (grabazioa atxikitua), kolore kodea erabiliz kategorizatuta Dimentsioak, kategoriak eta azpi-kategoriak era hierarkizatuan eta modu koherentean azaltzen dira eta ideia nagusiak agerian utziz
AURKEZPENA %70	Edukia eta metodologia %25	Kategorizazio prozesuan analizatutako datuetatik Gorputz Hezkuntzaren erronka nagusiak identifikatu dira
		Gorputz Hezkuntzaren erronka nagusiak haurren garapen psikologiko, sozial eta motorrean duen eraginarekin lotzen dira
		Gorputz Hezkuntzaren erronkak eta etorkizuneko orientabideak literatura zientifikoan oinarrituta daude
		Etorkizunerako orientabide didaktikoak prozesuan identifikaturiko erronka nagusiekin erlazionatzen dira
	Aurkezteko modua %20	Idea nagusiak argi eta koherentziaz azaltzen dira
		Hitzezko komunikazio lengoaia zaintzen da
		Ezarritako denborara mugatu dira
	Ezagutza maila %25	Gaiaren ezagutza sakona eta zehatza erakusten du
		Galderei erantzuten die ulermenez eta argudio propioez baliatuta
		Ideiak lotu, interpretatu eta kritikoki aztertzen ditu.
		Ekarpenen aurrean hausnartu eta bere erantzunak ñabartzen ditu.

2. Eranskina: Modulu lanaren autoebaluaketa

K6 MODULU LANAREN

NORBERAREN ETA TALDEKIDEEN EBALUAKETA

Markatu kasu bakoitzean ekarpen bakoitzaren inplikazio maila:

“B” inplikazio **baxua**

“E” **erdizkako** inplikazioa

“A” inplikazio **altua**

	Norbera	Taldekidea	Taldekidea	Taldekidea	(Taldekidea)
Izena:					
Abizena:					
Parte-hartzea aktiboa erakusten du taldeko jarduera eta eztabaidetan					
Erantzukizun eta ekarpen indibiduala erakusten ditu					
Idea sortzaileak eta berritzaileak proposatzen ditu					
Zereginak antolatzeko eta planifikatzeko trebetasuna du					
Komunikazioan argia eta eraginkorra da					
Talde lanean sortu daitezkeen erronkak konpontzeko trebetasuna du					
NOTAREN BANAKETA (%guztien batuketa %100 izango da)					
<u>OHARRAK-ARRAZOITU EBALUAZIOA:</u>					